

Diru sarrerei dagokionean, guk lortutako dirua ez da bezeroetatik ateratako dirua, hau da, guri dirua udaletxeak emango liguke baita ere diputazioak. Gure dirua ez da bezeroengandik ateratakoa izango ez zaigulako ondo iruditzen emakumeei, zein lagundu nahi duten gizonei, dirua eskatzea denon onerako den gauza batengatik.



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa



Lasarte-Oria

Beste diru sarrera gure aplikaziotik lortuko genuke hau da, Apple Storek edo Google Play-ek emango liguketen dirua gure aplikazioaren deskargen batera alderatuta eta era proportzional batean.



Gure aplikazioan ere publizitatea jarriko genuke, publizitatea jartzeko aukera asko daude. Hona hemen horietako batzuk:

1- Sartu bezain laster, publizitate pantaila edota pantailaren zati bat azaltzea. Horren alde txarra, norbait egoera larri batean aurkitzen bada publizitate pantaila horrek asko motelduko luke aplikazioaren zerbitzua.



2-Aipatutako arazoa ekidituko luke behin aplikazio barruan pantailaren zati bat bai goikaldean edo azpiko aldean banda moduko bat honela ez zuen eragopenik sortuko.

